

*Jokin Gorostidi,  
hiri*

Sei hilabete joan dira 18/98 izeneko *makrosumarioaren* ahozko saioa hasi zenetik, eta, luze joko zuelakoan sinetsirik izan arren, inork ez zuen espero azaroan hasita, maiatzean amaituko zirela doi-doi inputatuen deklarazioak eta, burutze-ko, beste hainbesteko denbora beharko zuenik, edo gehiago. Egunak joan ahala, *disparatearen* paradigma bihurtu da epaiketa, eta, su-etena indarrean jarri zenez geroztik, prehistoriako atala dirudi, benetako auzi-bidearen orde. Aitzitik, inork ez daki noiz bukatuko den eta nola, zeintzuk izango diren emaitzak, dagoeneko ondorioak nabarmenak diren arren: egunkariak itxita, hainbat erakunde deseginda, jende torturatua, ehunka lagun kaltetuta, diru-bermeek itota edo lana galduta. Gezurra dirudi, baina bost lagun hil dira instrukzioa abiatu zutenetik: azkena, Jokin Gorostidi. Inoiz justizia egiterik baldin badago, hori dena ere kontuan hartuko delakoan, hala ere. Ezin da ahaztu, ordea, orain martxan dagoen epaiketa hau, oso soka luzeko zatia baino ez dela, gazteen kontrako epaiari sententzia berrestea falta zaio, eta beste dozena erdi sumario

baitago zain, norbait noizbait zentzatzen hasiko ote den esperantzan...

### **Legea injustua denean**

Felipe Gonzalezen PSOEek euskal erresistentziari aurre egiteko sortu zuen GAL erakunde kriminalak porrot egin ondoren (dozenaka herritar akabatuta), PPk egoera hura bikain baliaturik iritsi zen Moncloara Jose María Aznar. *Aznaratoa* ere ez zen motz geratu euskal erresistentziari eraso egiten, eta, merzenarioen bidez hura desegitea nabarmenegi iritzita (PSOE gobernutik botatzeko GALen gaitzespena izan zen argudiorik usatuena), beste tresna onargarriagoa abiatu zuen, mekanismo judiziala, alegia, —bere efektu suntsitzaileengatik erreminta le-GALA ere deitua izan dena, aldi berean sozialistek erabilitako tresnaren sakoneko antza azpimarratzen duena—; aprobeztatuz, jakina, jendeak legeari dion errespetu totemikoa, legea eta justizia parekatzen duena, guztion zoritxarrerako. Beraz, merzenarioen hautua gaitzetsi arren (eskandaluz azalera ekarri zutenean, hala ere), gizajende askok ez zuen inolako arazorik izan legearen izenean euskal erresistentziarekiko eraso anker bezain bidegabeak onartzeko; kontuan hartu gabe, legea injustua izan daitekeela, eta injustizian oinarri harturik eraikitako legeak ez duela betetzea merezi...

Helburua betetzeko, PPk batere eskrupulurik gabeko epaile erresumindua hartu zuen gidari (Baltasar Garzón Real), harrezkero politika orokor baten goiburua izan den definizioari —“dena da ETA”— forma juridikoa eman diona; hau da, komando ekintzaileak eta elementu klandestino guztiak ez ezik, haren helburu estrategikoekin ados dauden eta egon daitezkeen guztiak osatzen dute ETA erakundea, eta, hala, benetan inork sinets ez dezakeen hibridoak sortu zuen: KAS-ETA-BATASUNA-EKIN... hain justu. Soka eromeneraino tenkatuz, non borroka armatua esplizituki gaitzetsi dutenak ere ETako kide edo kolaboratzailetzat hartuak izan diren...

Gehiegizko aurreiritzi hori gidari (dena ETA dela, alegia), batere orekarik gordetzen ez duen instrukzioa egin zuen Garzón Real-ek, adituen iritziz nondik oratu ez duena, prozesu baten lehen ikerketa serioarena baino gehiago, presazko bilketa baten itxura duena, harapari baten grinaz burutua. Izan ere, euskal herritar asko eta askoren etxe-bizitzak eta lantokiak suntsituz, guardia zibil eta polizia (eta ertzainak) modurik basatienean arituz, torturaren bidez gezurrezko testigantzak sinaraziz, jendea kartzela-zulora bidaliz, batere kontrolik gabe urtetan jendea zelatatuz, dokumentu, laneko material, testu, paper, karpeta, txosten, kontabilitateko orri, ordenagailu, helbide-zerrenda, telefono-gida eta abar, eta abar metatu ditu Madrilera nabe erraldoi batean, inoiz inputatuen aurpegira botatzeko, sats nazkagarria balitz bezala: sasi frogak, zantzu hutsak, indizioak, susmoak, irudimenezko interpretazioak, historiako pasarte desitxuratuak, dena bat.

Elementu horiek denak, ordea, badute ezaugarri komun bat, hots, hainbat eta hainbat alor eta eginbidetan modu militantean Euskal Herria eraikitzen ari zirenak dira gaurko inputatuak, haien objektuak dira ebatsiak, ekintza armatuak bezain kaltegarritzat harturik... Euskal Herriaren kontrako makineria ibili da urtetan han-hemenka sarraskia eraginez, euskal herritarren eskubideak zapalduz, legea modurik arbitrarioenean aplikatuz, bulkada politiko zehatza atzean zuela ("oraingoan errotik erauziko ditugu", "izurrite abertzalearekin amaituko dugu" erakoak), baina ez da erabat indiskriminatua izan: estatu-politika aplikatuz, Audientzia Nazionala lanean jarritz, era guztietako poliziak peskizan paratuz, *popularrek* helburu bat bazuten, hots Euskal Herria mapatik kentzea, behingoz Espainako zati bihurtzea hango hermitarrak —gu geu, hain justu—, eta badakite non jo duten; *pelagikoa* bota dutenean, arrain lodiak eta txikiak jaso dira sarean, bai, baina jausi direnen artean inor ez da espainiar sentitzen, denek dute Euskal Herria aberri bakartzat, orube hartan eraiki nahi dute aitaren etxea eta amaren sua gorde, ezkerretik moldatu nahi dute gizarte berria, horiek de-

nak auzipetzeko silogismo makurra erabili badute ere: ETAk Euskal Herria eraiki nahi du, harrapatu ditugunak ere bai, beraz ETakoak dira denak. Bapoi Arrazoi dute behin baino gehiagotan manifestatu diren herritarrek: ez dira delituak ebazten ari, ideiak eta jardunbideak auzipetzen ari dira, enpresak sortzeko ahalmena, adierazteko eta biltzeko askatasuna (hots, giza eskubide indibidual eta kolektiboak); ez dituzte delitu pertsonalak juzgatu nahi, jardun kolektiboak ezabatu nahi dituzte... eta horri, jakina, injustizia esaten zaio, tresna legalak legaltasunik gabe disidentziari kalte egiteko erabiltzea.

### **Epaiketa menderatu ezinik**

Autrekari horiekin, jakina, nekez burutu daiteke epaiketa ganoraz. Ahozko saioa hasi zenean egondako hainbat behatzailek eskandalizatuta begiratzen zioten Angela Murillo, Salinas eta Poveda epaileek osatutako epaimahaiari. Gil Matamala Europako Abokatu Demokraten presidentek zioen: "*Lehen egunetik bertatik daude nahikoa arrazoi epaiketa hau bertan behera uzteko*". Izan ere, intentzio argia ikusi zaie epaileei lehen egunetik: nola edo hala, bukatu, berme prozesalak egoki betetzen diren erreparatu gabe; baina, antza denez, ondo eza gutzen dituzten arren, ez dituzte kontuan hartu, defentsako abokatuak (Iruin, Goirizelaia, Landa, Zulueta, Alvaro eta Zigor Reizabal, Elosua, Trenor, Ibero) zeinek, jakitun izanik epaiketa politikoa dela, juridikoa baino askoz ere gehiago, bataila juridiko totala egiteko prestatuak joan baitira Madrileko Casa de Campora, eta hala, bigarren hilabeterako *intzidente* juridiko borobila zeukatzen epaimahaiarekin: planto egin zuten, bezeroak behar bezala defenditzeko baldintzarik ez zutelako. Begiratu noraino izango zuten arrazoi, ezker abertzaleko abokatu ezagunak izanik, ezen Euskal Herriko eta Espainiako abokatu kolegio denek bat egin zutela haiekin. Orduz geroztik, inputatuek gutxienez deklaratu ahal izan dugu, geure defentsa egin ahal izan dugu, eten handirik gabe. Defentsa politikoa

egin ahal izan dugu (hori ere erlatiboki, hala ere, zeren, adibidez, epaileak aipatu orduko, sugegoria bezain agudo eteten zuen diskurtsoa mahaiko presidenteak; edo eskubide-urraketak aipatzen hasita, muturra okertzen zuten hiru epaileek...).

Bertan orduak eta orduak ematen ditugunok eserita, ados gaude esatean erabat deseroso daudela epaileak epaiketa honekin, euren sinesgarritasuna eta *jitea* jokoan dagoelako, *marroi* bat dela haientzat, zeren, gure lagunak batere ez direla jakinda ere, hain modu zabarrean egindako instrukzioa oinarri izanda, erraz uler daiteke ezin mendera daitekeela epaiketarik. Historikoa da, adibidez, epaiketa hasi eta gero 100.000 folio gehiago agertu zeneko unea, zenbakitu gabeko paperetan, zenbakitu gabeko liburukitan, batere ordenarik gabeko kutxatan... Eurek ere badakite erridikulua egiten ari direla (26 aldiz eten behar izan dute epaiketa, eta 15 aldiz erretiratu dira erabakiren bat hartzeko), eta horrek, noski, ondoeza sortzen du, eta hala esplikatu daiteke epaileen zakarkeria, gizalege gabeko jarrerak, kategoria eskasa, trebezia nulua, inputatuekiko errespeturik eza, nola edo hala amaitzeko presa, abokatuen jarrera irmoa sistematikoki gutxiestea edozein bidegabekeria helegite-rako utziz, inputatuen barrea ezin eramatea...

Ordea, nik badut kezka bat, eta *Karmel* aldizkari honetan azalduko dut. Alegia, entzun al gaituzte, sikieran? Entzunda, ulertu al digute esandakoa? Ulertu ote dute, adibidez, gure herrian gaitasun aparta dagoela autoantolatzeko, aberastasun itzela dagoela herri- eta gizarte-mugimenduetan; ez dela *etaki-dea* izan behar gurea dena maitatzeko, geure hizkuntza salbatzen saiatzeko, geure nazioa eratzen nekatzeko, geure eskubideen nondik norakoa azaltzen ibiltzeko, lege injustuen aurrean desobediente eta intsumiso izateko; hainbat eta hainbat lagunek beren ondasunak eta erosotasuna jartzen dutela jokoan era guztietako proiektuak bultzatzeko inoren agindupean egon gabe, Euskal Herrian oraindik badela usteldu gabeko jenderik, etab. etab.? Egiatan, ulertzen al gaituzte? Nik ezetz esango nu-

ke, modu traketsean itzulitako euskal bertsoak entzunda hainbat inputatuk erakutsi duten haserrea ulertzen ez duten bezalaxe, ez digute ulertzen, ez gaituzte ulertzen. Eta hala ere, gure bizitzaren gainean ebatziko dute (kartzela-eskariak 51 urtetik 10 urtera bitartekoak dira).

### **Korapiloa nola askatu**

Orain arte penagarria eta lotsa emangarria izaten ari da epaiketa. Gure deklarazioen fasea amaiturik inputatuok emandako prentsaurrekoan eskainitako datuen arabera: 100 ordu egon gara epai-gelan, baina 190 errepidean; 14.000 km egin ditugu dagoeneko furgonetatan; 20.000 € gastatu ditugu hilean, batez beste; gure kide batzuek lana galdu dute, eta beste batzuek bi egunetan egin behar izaten dute aste osoko eginbeharra. Hainbati osasun-arazoak sortu zaizkio, Jokin Gorostidi hil zaigu deklaratu behar zuen bezperan gaixotuta, eta beste lau instrukzioa hasi zenetik (Ollokiegi, Aranburu, Gorostiza, Gorka Martinez), bi lagun epaiketatik kanpo geratu behar izan dira gaixotasun larriak direla medio (Pepe Rei eta Ramon Uranga). Ikusten denez, prezioa altua da dagoeneko, eta ez gara erdira iritsi...

ETAren su-etena gertatu ondoren, beste aldi bateko hondakina dela dirudi epaiketa honek, zabor hutsa. Aitzitik, bola biraka dabil eta ez dirudi inork gaitasuna duenik gerarazteko. Defentsako abokatuen iritziz, kataklismo erabatekoa gertatu ezean, sententzia batekin amaituko da "18/98+ plataformako" kideak behin eta berriro eskatu dute epaiketa hau eten eta zerrendan daudenak bertan behera uzteko. Gogora dezagun, gazteen epaiketa burututa eta 18/98 abian, beste hainbat sumario daudela zain, noiz ebatziko: Batasuna, Amnistiaren aldeko Batzordeak, Herriko Tabernak, Askatasuna, Egunkaria, Udalbiltza; eta PPren egitasmoan auzigai ziren, baita ere, EUDIMA, ENA, Abokatu Euskaldunen Sindikatua, ESAIT, UEMA, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Zabaltzen, A-8 Doaina taldea,

etab., etab. Espainiako Audentzia Nazionala likidatzeko ere eskatu da, euskaldunon disidentzia zigortzeko TOP-en oinordekoa baino ez baita. Nork egingo du, ordea, hori dena? Epai-keta ez bada eteten eta sententzia baldin badago, nolako eragina izango du hartan euskal erresistentziaren biolentzia desagertzeak? Oraintsuko giro itxaropentsuan ez lukete lekurik izan behar horrelako eraso politiko-judizialek, baina hor daude, oraingoz, atxiloketak eta tortura bizi-bizirik dauden bezalaxe, ezker abertzaleko hainbat erakunde legez kanpo jarraitzen duten bezala, presoek beren zulo hitsetan jarraitzen duten bezala, sakabanaturik. Hala ere, elementu horiek denak, ETAK lehenago eta Rodriguez Zapaterok geroago esandakoaren baitan ulertu beharko ditugu, alegia, "prozesua luzea, zaila eta gogorra" izango zela..., egun argiari so.

Edozein modutan, ebazpen judizialik gabe ere, kaltea egin da dago alde aurretik, instrukzio-fasean bertan: *Egin* egunkaria eta *Egin* irratia, gehi *Euskaldunon Egunkaria* eta *Ardi Beltza* itxita daude betiko, hainbat herriko taberna ere bai oraingoz, inputatu gehienek kartzelan eman dituzte hilabeteak edo urteak, batzuk modu basatian torturatuak izan dira eta ez diete sinetsi nahi, ia denek fidantza ekonomiko gogorrei aurre egin behar diete (eta diru hori ez zaie itzuliko, bankuak jarritako bermeak direlako), hainbat erakunde politiko zein sozial legez kanpo jarrita daude edo begirale judizial baten pean lan egiten dute, Euskal Herriaren alde munduan zehar egindako lana eta sorturiko harremanak blokeatuta daude... Gaitz erdi, hala ere, bake- eta normalizazio-prozesuan eskubide zibil eta politikoak erdiesteko balio baduen horrek denak. Oraingoz, gobernuaren zintzotasuna egiaztatzeko balio du, haren borondatea auzitan jartzeko, gure erruduntasuna frogatzeko baino gehiago.

*Jexuxmari Zalakain*  
18/98ko auzipetua, "Egin" kasua